azkenik, $\operatorname{tg}\frac{1}{2}\theta = \dfrac{\sin\frac{1}{2}\theta}{\cos\frac{1}{2}\theta} = \pm\sqrt{\dfrac{1-\cos\theta}{1+\cos\theta}}$

$$= \pm\sqrt{\frac{(1-\cos\theta)\ (1+\cos\theta)}{(1+\cos\theta)\ (1+\cos\theta)}} = \pm\sqrt{\frac{1-\cos^2\theta}{(1+\cos\theta)2}} = \frac{\sin\theta}{1+\cos\theta}$$

$$= \pm\sqrt{\frac{(1-\cos\theta)\ (1-\cos\theta)}{(1+\cos\theta)\ (1-\cos\theta)}} = \pm\sqrt{\frac{(1-\cos\theta)^2}{1-\cos 2\theta}} = \frac{1-\cos\theta}{\sin\theta}$$

$\pm$ zeinuak ez dira beharrezko, tg $\frac{1}{2}\theta$ eta sinθ zeinu berdinekoak bait dira, eta 1-cos θ beti positibo.

BATURA, KENDURA ETA BIDERKADURA FORMULAK

SINU ETA COSINU ARTEKO BIDERKADURAK

$$\sin\alpha\cos\beta = \frac{1}{2}\left[\sin(\alpha+\beta) + \sin(\alpha-\beta)\right.$$

$$\cos\alpha\sin\beta = \frac{1}{2}\left[\sin(\alpha+\beta) - \sin(\alpha-\beta)\right.$$

$$\cos\alpha\cos\beta = \frac{1}{2}\left[\cos(\alpha+\beta) + \cos(\alpha-\beta)\right.$$

$$\sin\alpha\sin\beta = -\frac{1}{2}\left[\cos(\alpha+\beta) - \cos(\alpha-\beta)\right.$$

ikus frogatzat, 1 problema

SINU ETA COSINU ARTEKO BATURA ETA KENDURA

$$\sin A + \sin B = 2\sin\frac{1}{2}(A+B)\cos\frac{1}{2}(A-B)$$

$$\sin A - \sin B = 2\cos\frac{1}{2}(A+B)\sin\frac{1}{2}(A-B)$$

$$\cos A + \cos B = 2\cos\frac{1}{2}(A+B)\cos\frac{1}{2}(A-B)$$

$$\cos A - \cos B = -2\sin\frac{1}{2}(A+B)\sin\frac{1}{2}(A-B)$$

ikus frogatzat, 2 problema

PROBLEMA ASKATUAK

1. Biderkaduren formulak ezar:

$$\sin(\alpha+\beta)+\sin(\alpha-\beta)=(\sin\alpha\cos\beta+\cos\alpha\sin\beta)+(\sin\alpha\cos\beta-$$

$$-\cos\alpha\sin\beta)=2\sin\alpha\cos\beta,$$

$$\sin\alpha\cos\beta=\frac{1}{2}\left[\sin(\alpha+\beta)+\sin(\alpha-\beta)\right]$$

$$\sin(\alpha+\beta)-\sin(\alpha-\beta)=2\cos\alpha\sin\beta,$$

$$\cos\alpha\sin\beta=\frac{1}{2}\left[\sin(\alpha+\beta)-\sin(\alpha-\beta)\right]$$

$$\cos(\alpha+\beta)+\cos(\alpha-\beta)=(\cos\alpha\cos\beta-\sin\alpha\sin\beta)+(\cos\alpha\cos\beta+$$

$$+\sin\alpha\sin\beta)=2\cos\alpha\cos\beta,$$

$$\cos\alpha\cos\beta=\frac{1}{2}\left[\cos(\alpha+\beta)+\cos(\alpha-\beta)\right]$$

$$\cos(\alpha+\beta)-\cos(\alpha-\beta)=-2\sin\alpha\sin\beta,$$

$$\sin\alpha\sin\beta=-\frac{1}{2}\left[\cos(\alpha+\beta)-\cos(\alpha-\beta)\right]$$

2. Ezar batura eta kendura formulak

bitez $\alpha+\beta=A$ eta $\alpha-\beta=B$. Beraz $\alpha=\frac{1}{2}(A+B)$, $\beta=\frac{1}{2}(A-B)$

Orduan (ikus 1. problema)

$$\sin(\alpha+\beta)+\sin(\alpha-\beta)=2\sin\alpha\cos\beta\rightarrow\sin A+\sin B=2\sin\frac{1}{2}(A+B)\cos\frac{1}{2}(A-B$$

$$\sin(\alpha+\beta)-\sin(\alpha-\beta)=2\cos\alpha\sin\beta\rightarrow\sin A-\sin B=2\cos\frac{1}{2}(A+B)\sin\frac{1}{2}(A-B)$$

$$\cos(\alpha+\beta)+\cos(\alpha-\beta)=2\cos\alpha\cos\beta\rightarrow\cos A+\cos B=2\cos\frac{1}{2}(A+B)\cos\frac{1}{2}(A-B)$$

$$\cos(\alpha+\beta)-\cos(\alpha-\beta)=-2\sin\alpha\cos\beta\rightarrow\cos A-\cos B=-2\sin\frac{1}{2}(A+B)\sin\frac{1}{2}(A-B)$$

VI - TRIANGELU ZEIHARRAK. ASKAPEN EZ LOGARITMIKOA

VI - TRIANGELU ZEIHARRAK. ASKAPEN EZ LOGARITMIKOA

TRIANGELU ZEIHAR BAT, angelu zuzenik ez duena da. Honelako triangelu batek hiru angelu zorrotz ditu, edo eta bi zorrotz eta kamuts bat.

Hemen, angeluak A, B, eta C, eta dagozkien aurkako aldeak, a, b eta c, deitzeko konbentzioa erabili da.



Hiru elementu ezagutzen badira, (hiru angeluak kanpo), triangelua, gero ikusiko den kasu batetan ezezik, determinaturik gelditzen da. Triangelu zeiharren lau kasuak hauk dira:

I. Kasua Alde bat eta bi angelu emanik
II. Kasua Bi alde eta baten aurkako angelua emanik
III. Kasua Bi alde eta osatzen duten angelua emanik
IV. Kasua Hiru aldeak emanik

SINUAREN TEOREMA. Triangelu orotan, aldeak, aurkako angeluen sinuekiko proportzionalak dira. $\frac{a}{\sin A} = \frac{b}{\sin B} = \frac{c}{\sin C}$

Hemendik honako erlazioak sortzen dira:

$$\frac{a}{b} = \frac{\sin A}{\sin B}, \quad \frac{b}{c} = \frac{\sin B}{\sin C}, \quad \frac{c}{a} = \frac{\sin C}{\sin A}$$

MOLLWEIDE-REN FORMULAK. ABC triangelu orotan

$$\frac{a+b}{c} = \frac{\cos 1/2\ (A-B)}{\sin 1/2\ c}, \quad \frac{a-b}{c} = \frac{\sin 1/2\ (A-B)}{\cos 1/2\ c}$$

eta letren trukaketa ziklikoen bidez lortzen direnak, hau da

$$\frac{b+c}{a} = \frac{\cos 1/2\ (B-C)}{\sin 1/2\ A}, \quad \frac{b-c}{a} = \frac{\sin 1/2\ (B-C)}{\cos 1/2\ A}$$

$$\frac{c+a}{b} = \frac{\cos 1/2\ (C-A)}{\sin 1/2\ B}, \quad \frac{c-a}{b} = \frac{\sin 1/2\ (C-A)}{\cos 1/2\ B}$$

eta ekuazio bakoitzeko zenbakitzaileko bi letren (maiuskula eta minuskula) trukaketaz lortutakoak.

PROJEKZIO FORMULAK. ABC triangelu batetan

$$a = b\cos C + c\cos B$$
$$b = c\cos A + a\cos C$$
$$c = a\cos B + b\cos A$$

I. KASUA. Alde bat eta bi angelu emanik.

adibidea. Suposa ditzagun a, B eta C emanik

A aurkitzeko, $A = 180° - (A+C)$ erabil

b aurkitzeko, $\frac{b}{a} = \frac{\sin B}{\sin A}$ erabil, eta $b = \frac{a \sin B}{\sin A}$

c aurkitzeko, $\frac{c}{a} = \frac{\sin C}{\sin A}$ erabil, eta $c = \frac{a \sin C}{\sin A}$

Konprobatzeko, erabil Mollweide-ren formuletatik bat, edo projekziotako bat

II. KASUA. Bi alde eta baten aurkako angelua emanik

adibidea. Suposa ditzagun b, c eta B emanik

$\frac{\sin C}{\sin B} = \frac{c}{b}$ bada, $\sin C = \frac{C \sin B}{b}$

$\sin C > 1$ bada, ez da inolako C angelurik determinatzen.

$\sin C = 1$ bada, $C = 90°$ eta triangelu zuzen bat determinatzen da.

$\sin C < 1$ bada, bi angelu determinatzen dira: bata C, zorrotza, eta bestea $C' = 180° - C$, kamutsa.

Honela bada, bat edo bi triangelu gerta daitezke.

Kasu hau geometrikoki aztertzen da 7. probleman. Lortutako emaitzak honela labur daitezke:

angelu zorrotza bada

(a) emandako angeluaren aurkako aldea, emandako beste aldea baino handiago bada edo berdina, emaitza BAT

(b) emandako angeluaren aurkako aldea, emandako beste aldea baino txikiagoa bada, BI emaitza, BAT bakarra (triangelu zuzena), edo emaitzarik ez

angelua kamutsa bada

(c) emandako angeluaren aurkako aldea, emandako beste aldea baino txikiagoa edo berdina bada, INOLAKO emaitzarik ez

(d) emandako angeluaren aurkako aldea, emandako beste aldea baino handiago bada, emaitza BAT

adibidea. (1) $b = 30$, $c = 20$, eta $B = 40°$bada, B zorrotza denez eta b c denez, emaitza bat ba da.

(2) $b = 20$, $c = 30$, eta $B = 40°$bada, ez da emaitzarik, edo bat bakarra da, edo bi dira. Kasu berezia, $\sin C = \frac{c \sin B}{b}$ kalkulatuz lortzen da.

(3) $b = 30$, $c = 20$ eta $B = 140°$ bada, emaitza bat ba da

(4) $b = 20$, $c = 30$ eta $B = 140°$ bada, ez da emaitzarik

Hau, kasu anbiguoa deritzana da, eta sinuaren teorema bidez askatzen da; Mollweide-ren formulen bidez edo projekziokoen bidez konproba daiteke.

CONSINUAREN TEOREMA. ABC triangelu batetan, alde baten karratua, beste bi aldeen karratuen batura ken bi alde hauek bidez biderkaturiko osatzen duten angeluaren cosinua, da. Hau da,

$$a^2 = b^2 + c^2 - 2bc \cos A$$
$$b^2 = c^2 + a^2 - 2ca \cos B$$
$$c^2 = a^2 + b^2 - 2ab \cos C$$

III. KASUA. Bi alde eta osatzen duten angelua emanik.

adibidea. Suposa ditzagun a, b eta C emanik

c aurkitzeko, $c^2 = a^2 + b^2 - 2ab \cos C$ erabil

A aurkitzeko, $\sin A = \frac{a \sin C}{c}$ erabil

B aurkitzeko, $\sin B = \frac{b \sin C}{c}$ erabil

Konprobatzeko, $A + B + C = 180°$ erabil

IV. KASUA. Hiru aldeak emanik.

adibidea. a, b eta c emanik, aska consinuaren teorema

angelu bakoitzerako.

Angeluak aurkitzeko, $\cos A = \frac{b^2 + c^2 - a^2}{2bc}$,

$\cos B = \frac{c^2 + a^2 - b^2}{2ca}$, $\cos C = \frac{a^2 + b^2 - c^2}{2ab}$

Konprobatzeko, $A + B + C = 180°$ erabil.

VII - ALDERANTZIZKO FUNTZIO TRIGONOMETRIKOAK

VII - ALDERANTZIZKO FUNTZIO TRIGONOMETRIKOAK

VII.1 - ALDERANTZIZKO FUNTZIO TRIGONOMETRIKOAK

(1) $x = \sin y$

ekuazioak, edozein y angelurentzat, x balio bakar bat definitzen du. Baina alderantziz egiten badugu, hau da, x balio bat ematen badugu, bi kasu gerta daitezke: Ekuazioak emaitzarik ez izatea, edota infinitu izatea. Adibidez: $x = 2$ egiten badugu, ez dago emaitzarik, zeren angelu baten sinuak ez bait du 1 gainezkatzen $x = 1/2$ bada, y emaitza asko daude, hobe esan, infinitu: $y = 30°, 150°, 390°, 510°, \ldots, -210°, -330° \ldots$

y x en funtzio bezala adierazteko, era honetan idazten da:

(2) $y = \text{arc} \sin x$

hemen arku hitza agertu arren, expresio hau honela ulertu behar da: "y, bere sinua x den angelua da". Era berean

$y = \text{arc} \cos x \quad , \quad x = \cos y$ bada
$y = \text{arc tg } x \quad , \quad x = \text{tg } y$ bada, e.a.

Azken expresio hauk beste notazio honetan ere idaz daitezke:

$y = \text{arc} \sin x = \sin^{-1} x$
$y = \text{arc} \cos x = \cos^{-1} x$ e.a.

Halere, notazio hau ez da oso erabilia, konfusioak sort ez daitezen. Gogora dezagun:

$\sin^{-1} x = \text{arc} \sin x \qquad (\sin x)^{-1} = \dfrac{1}{\sin x}$

VII. 2 - ALDERANTZIZKO FUNTZIO TRIGONOMETRIKOEN GRAFOAK

$y = \text{arc sin } x$ eta $x = \sin y$ en grafoak berdinak dira. Grafo hau eta $y = \sin x$ en grafoa ere berdinak dira, x eta y ardatzak aldatuz. Grafo batetako x balioa, beste grafoan y aldagaiak hartzen du. Honela, ba, $y = \text{arc sin } x$ ren grafoa y ardatzean marraztutako kurba sinusoidal bat da.

Era berean, beste alderantzizko funtzio trigonometrikoen grafoak ere funtzio trigonometrikoen grafoak dira, x y ren ordez, eta alderantziz, jarriz.

VII. 3 - BALIO NAGUSIAK

Batzutan, halabeharrez edo, alderantzizko funtzio trigonometrikoak uniforme balira bezala kontsideratu beharko dugu. Uniforme izateak hau esan nahi du: x balio onhargarri bakoitzerako y balore bakar bat dugula.

Honetarako, x balio ezagunari dagozkien angelu guztien artetik bat aukeratzen dugu. Adibidez, $x = 1/2$ bada, y balioa = = 30° aukeratuko dugu, eta $x = -1/2$ bada, y balioa = -30° aukeratuko dugu. Aukeratutako balio honi arc sin x ren balio nagusia deritzogu. Balio nagusia bakarrik dugunean kontutan, honela idatziko dugu: arc sin x, arc cos x, ... Ondoko irudietan agertzen diren lerro lodiak, alderantzizko funtzio trigonometrikoen balio nagusien tarteei dagozkie.

x positiboa edota zero bada, eta alderantzizko funtzioa existitzen bada, balio nagusia honela definituko dugu: y ren balioa da, eta o eta $\frac{\pi}{2}$ ren artean dago. Muturreko bi balio hauk ere barruan sartzen dira. Adibidez:

$$\text{arc sin } \frac{\sqrt{3}}{2} = \frac{\pi}{3} \quad \text{zeren } \sin\frac{\pi}{3} = \frac{\sqrt{3}}{2} \quad \text{eta} \quad o < \frac{\pi}{3} < \frac{\pi}{2}$$

$$\text{arc cos } \frac{\sqrt{3}}{2} = \frac{\pi}{6} \quad \text{zeren } \cos\frac{\pi}{6} = \frac{\sqrt{3}}{2} \quad \text{eta} \quad o < \frac{\pi}{6} < \frac{\pi}{2}$$

$$\text{arc tg } 1 = \frac{\pi}{4} \quad \text{zeren tg } \frac{\pi}{4} = 1 \quad \text{eta} \quad o < \frac{\pi}{4} < \frac{\pi}{2}$$

Baina x negatiboa bada, eta alderantzizko funtzio existitzen bada, balio nagusia honela definituko da:

$-\frac{1}{2}\pi \leq \text{arc sin } x < 0$ $\qquad$ $\frac{1}{2}\pi < \text{arc tg } x < \pi$

$\frac{1}{2}\pi < \text{arc cos } x \leq \pi$ $\qquad$ $-\pi \leq \text{arc sin } x < -\frac{1}{2}\pi$

$-\frac{1}{2}\pi < \text{arc tg } x < 0$ $\qquad$ $-\pi < \text{arc cosec } x \leq -\frac{1}{2}\pi$

Adibidez:

$\text{arc sin } (-\sqrt{3}/2) = -\frac{\pi}{3}$ $\qquad$ $\text{arc ctg } (-1) = \frac{3\pi}{4}$

$\text{arc cos } (-1/2) = \frac{2\pi}{3}$ $\qquad$ $\text{arc sec } (-2/\sqrt{3}) = -5\pi/6$

$\text{arc tg } (-1/\sqrt{3}) = -\frac{\pi}{6}$ $\qquad$ $\text{arc cosec } (-\sqrt{2}) = -3\pi/4$

OHARRA: Zenbait autore ez dator bat, (x negatiboa bada), alderantzizko funtzioen balio nagusiak definitzerakoan. Hemen emandako definizioak, lagungarrienak dira kalkulurako.



y = arc sin x $\qquad$ y = arc tg x $\qquad$ y = arc sec x



y = arc cos x y = arc ctg x y = arc cosec x

VII. 4 - ALDERANTZIZKO FUNTZIO TRIGONOMETRIKOEN BALIO JENERALAK

Bedi y x en alderantzizko funtzio trigonometriko bat. y ren funtzio trigonometrikoaren balioa ezaguna denez gero, angeluaren alde terminalerako normalki biposizio determinatzen dira. Bitez y1 eta y2 alde terminalaren bi posizioak determinatutako angeluak. Orduan, y ren balio guztiak y1 eta y2 angeluenak dira, eta koterminale guztiak beraiekin, hau da:

$$y1 + 2\,n\pi \qquad \text{eta } y2 + 2n\pi$$

n zenbakia, zenbaki oso eta positibo, negativo edo zero izanik. Y1 edo Y2 balioa (bietako bat, berdin da hori) har daiteke beti alderantzizko funtzio trigonometrikoaren balio nagusitzat.

Adibidea:

Ondoko funtzioen balio jeneralentzat, expresioak lortu:

a) arc sin 1/2 . Honen balio nagusia $\frac{\pi}{6}$ da.

Bigarren balio bat, balio nagusiaren koterminala ez dena, berriz, $\frac{5\pi}{6}$ da. Beraz arc sin 1/2 ren balio jenerala hau da

$$\frac{\pi}{6} + 2\pi n \quad , \quad \frac{5\pi}{6} + 2\,n\pi$$

n zenbakia, zenbaki oso eta positibo, negativo edo zero izanik.

b) arc cos (-1). Honen balio nagusia π da eta ez dago beste baliorik, berarekin koterminala denik. Honela, ba, bere balio jenerala $\pi+2\,n\pi$ da, n zenbaki oso bat izanik.

c) arc tg (-1) . Honen balio nagusia $-\frac{\pi}{4}$ da, eta bigarren balio bat - balio nagusiarekin koterminala ez dena - , $\frac{3\pi}{4}$ da. Honela, ba, balio jenerala hau da:

$$-\frac{\pi}{4} + 2\,n\pi \qquad , \frac{3\pi}{4} + 2\,n\pi$$

n edozein zenbaki oso bat izanik.

PROBLEMA ASKATUAK

1.- Aurki itzazu balio nagusiak:

a) arc sin 0 = 0
b) arc cos (-1) = π
c) arc tg $\sqrt{3}$ = $\pi/3$
d) arc cotg $\sqrt{3}$ = $\pi/6$
e) arc sec 2 = $\pi/3$
f) arc cosec $(-\sqrt{2})$ = $-\frac{3\pi}{4}$
g) arc cos 0 = $\pi/2$
h) arc sen (-1) = $-\pi/2$
i) arc tg (-1) = $-\pi/4$
j) arc cotg 0 = $\pi/2$
k) arc sec $(-\sqrt{2})$ = $-\frac{3\pi}{4}$
l) arc cosec (-2) = $-\frac{5\pi}{6}$

2.- Aurki itzazu balio nagusiak, minuto bateko hurbilkataz:

a) arc sen 0,3333 = 19° 28'
b) arc cos 0,4000 = 66° 25'
c) arc tg 0,5000 = 56° 19'
d) arc ctg 1,1875 = 40° 6'
e) arc sec 1,0324 = 14° 24'
f) arc cosec 1,5082 = 41° 32'
g) arc sin (-0,6439)= -40° 5'
h) arc cos (-0,4519)= 116° 52'
i) arc tg (-1,4400)= -55° 13'
j) arc ctg (-0,7340)= 126° 17'
k) arc sec (-1,2067)=-145° 58'
l) arc cosec(-4,1923)=-166°12'

3.- Konproba ezazu:

a) $\sin(\text{Arc sin } 1/2) = \text{sen } \pi/6 = 1/2$
b) $\cos(\text{Arc cos } (-1/2)) = \cos 2\pi/3 = -1/2$
c) $\cos(\text{Arc sin } (-\sqrt{2}/2)) = \cos(-\pi/4) = \sqrt{2}/2$
d) $\text{Arc sen } (\text{sen } \pi/3) = \text{Arc sen } \sqrt{3}/2 = \pi/3$
e) $\text{arc cos } (\cos(-\pi/4)) = \text{arc cos } \sqrt{2}/2 = \pi/4$
f) $\text{arc sin } (\text{tg } 3\pi/4) = \text{arc sen } (-1) = -\pi/2$
g) $\text{arc cos } (\text{tg } (-5\pi/4)) = \text{arc cos } (-1) = \pi$

4.- Konproba ezazu:

a) $\text{Arc sin } \sqrt{2}/2 - \text{Arc sin } 1/2 = \pi/4 - \pi/6 = \pi/12$
b) $\text{arc cos } 0 + \text{arc tg } (-1) = \pi/2 + (-\pi/4) = /4 = \text{arc tg } 1$

5.- Kalkula ezazu:

a) cos (Arc sin 3/5)



b) sen (arc cos (-2/3))



d) tg (Arc sin (-3/4))



a) Izan bedi $\emptyset$ = Arc sin 3/5; beraz sin $\emptyset$ = 3/5, zeren lehen koadrantean bait dago. (a) irudian, cos (Arc sin 3/5) = cos $\emptyset$ = 4/5

b) Izan bedi $\emptyset$ = Arc cos (-2/3); beraz cos $\emptyset$ = -2/3, zeren bigarren koadrantean bait dago. (b) irudian, sin (Arc cos (-2/3)) = sen $\emptyset$ = $\sqrt{5}/3$

c) Izan bedi $\emptyset$ = Arc sen (-3/4); beraz sin $\emptyset$ = -3/4 , zeren laugarren koadrantean bait dago. (c) irudian, tg (Arc sen (-3/4)) = tg $\emptyset$ = $-3/\sqrt{7} = -3/\sqrt{7}/7$

6.- Kalkula ezazu (Arc sin 12/13 + Arc sin 4/5)

Izan bedi $\emptyset$ = Arc sin 12/13 eta

$\emptyset$ = Arc sin 4/5

Orduan, sin $\emptyset$ = 12/13 eta sin $\emptyset$ = 4/5, $\emptyset$ eta $\emptyset$ lehen koadrantean gelditurik. Ondoko irudietan ikusten denez gero,



sin (Arc sin 12/13 + Arc sin 4/5) = sin($\emptyset$+$\emptyset$) =

$= \sin\emptyset\cos\emptyset + \cos\emptyset\sin\emptyset = \frac{12}{13}\cdot\frac{3}{5} + \frac{5}{13}\cdot\frac{4}{5} = \frac{56}{65}$



7.- Kalkula ezazu cos (Arc tg 15/8 - Arc sin 7/25)

Izan bedi $\emptyset$ = Arc tg 15/8

$\emptyset$ = Arc sin 7/25

Orduan, tg $\emptyset$ = 15/8 eta sin $\emptyset$ = 7/25, $\emptyset$ eta $\emptyset$ lehen koadrantean gelditurik. Ondoko irudietan ikusten denez,

cos (Arc tg 15/8 - Arc sin 7/25) = cos ($\emptyset$ - $\emptyset$) =

= cos $\emptyset$ cos $\emptyset$ + sin $\emptyset$ sin $\emptyset$ =

$= \frac{8}{17}\cdot\frac{24}{25} + \frac{15}{17}\cdot\frac{7}{25} = \frac{297}{425}$



8.- Kalkula ezazu sin (2 Arc tg 3)

Izan bedi $\emptyset$ = arc tg 3; orduan, tg $\emptyset$ = 3 eta, beraz, $\emptyset$ lehen koadrantean dago. Ondoko irudian ikusten denez, sin (2 Arc tg 3) = sin 2 $\emptyset$ = 2 sin $\emptyset$ cos $\emptyset$ = 2(3/ 10)(1/ 10)= = 3/5

9.- Froga ezazu ondoko berdintza hau 2 Arc tg 1/2 = Arc tg 4/3
Izan bedi $\emptyset$ = Arc tg 1/2 eta $\emptyset$ = Arc tg 4/3; beraz, tg $\emptyset$ = = 1/2, eta tg $\emptyset$ = 4/3. Frogatu behar duguna hau da, hots, 2 $\emptyset$ = $\emptyset$, edota, bi aldeetan tangenteak harturik, tg 2 $\emptyset$ = = tg $\emptyset$.

Gogoratuz tg $2\emptyset = \frac{2 \text{ tg } \emptyset}{1-\text{tg}^2\emptyset}$ dela, gure kasuan: tg $2\emptyset$ =

$= \frac{2\ (1/2)}{1-(1/2)^2} = \frac{4}{3} = \text{tg } \emptyset$

10.- Froga ezazu ondoko berdintza hau: Arc sin 77/85 - Arc sin 3/5= = Arc cos 15/17

Izan bitez $\emptyset$ = Arc sin 77/85 $\emptyset$ = arc sin 3/5, eta $\emptyset$ = = Arc cos 15/17; beraz, sin $\emptyset$ = 77/85, sin $\emptyset$ = 3/5, eta cos $\emptyset$ = 15/17. Ikusten den bezala angelu guztiak lehen koadrantean aurkitzen dira. Erlazioaren bi aldeetan sinuak hartuaz, zera frogatuko dugu, hots: sin (θ - $\emptyset$) = sin $\emptyset$.

Irudiei jarraituz: sin (θ - $\emptyset$) = sin θ cos $\emptyset$ - cos $\emptyset$ sin $\emptyset$=

$= \frac{77}{85} \cdot \frac{4}{5} - \frac{36}{85} \cdot \frac{3}{5} = \frac{8}{17} = \sin \emptyset$

$\cos \emptyset = \sqrt{1 - \text{sen}^2\emptyset} = \sqrt{1 - (\frac{8}{17})^2} = \frac{15}{17}$







11.- Froga ezazu ondoko berdintza hau:

$$\text{Arc tg } 1/2 + \text{Arc tg } 1/5 = \text{Arc tg } 1/8 = \pi/4$$

Guz orain frogatuko duguna hau da, hots:

$$\text{Arc tg } 1/2 + \text{Arc tg } 1/5 = \pi/4 - \text{Arc tg } 1/8$$

$$\text{tg } (\text{Arc tg } 1/2 + \text{Arc tg } 1/5) = \frac{1/2 + 1/5}{1-(1/2)(1/5)} = \frac{7}{9}$$

$$\text{tg } (\pi/4 - \text{Arc tg } 1/8) = \frac{1 - 1/8}{1 + 1/8} = \frac{7}{9}$$

12.- Kalkula itzazu expresio hauel balio jeneralak:

a) $\text{arc sin } \sqrt{2}/2 = \pi/4 + 2n\pi \;,\; 3\pi/4 + 2n\pi$
b) $\text{arc cos } 1/2 = \pi/3 + 2n\pi \;,\; 5\pi/3 + 2n\pi$
c) $\text{arc tg } 0 = 2n\pi \;,\; (2n + 1)\pi$

n edozein zenbaki oso izanik.

d) $\text{arc sin } (-1) = -\pi/2 + 2n\pi$
e) $\text{arc cos } 0 = \pi/2 + 2n\pi \;,\; 3\pi/2 + 2n\pi$
f) $\text{arc tg } (-\sqrt{3}) = -\pi/3 + 2n\pi \;,\; 2\pi/3 + 2n\pi$

n edozein zenbaki oso izanik.

13.- Kalkula itzazu expresio hauen balio jeneralak:

a) arc sin x

Izan bedi $\theta = \text{Arc sin } x$. Jakinik $\sin(\pi - 0) = \sin o$ dela, arc sin x ren balio guztiak modu honetakoak dira:

(1) $\theta + 2m\pi$ eta $(2)\pi - \theta + 2m\pi = (2m + 1)\pi - 0$;

$n = 2m$ bada, hau da, n bikoiti bada, (1) honela idaz daiteke: $n\pi + \theta = n\pi + (-1)^n \theta$.

Honela, ba, $\text{arc sin } x = n\pi + (-1)^n \text{ arc sin } x$, n zenbaki osoa izanik.

b) arc cos x

Izan bedi θ = arc cos x. Jakinik cos $(-\theta)$ = cos θ dela, arc cos x ren balioa guztiak modu honetakoak dira:

$\theta + 2n\pi$ eta $-\theta + 2n\pi$ edota, baita ere, $2n\pi \pm \theta =$
$= 2n\pi \pm$
$\pm$ Arc cos x , n zenbaki osoa izanik.

c) Arc tg x

Izan bedi θ = arc tg x . Jakinik tg $(\theta + \pi)$ = tg θ dela, arc tg x ren balio guztiak modu honetakoak dira:

$\theta + 2m\pi$ eta $(\pi + \theta) + 2m\pi = \theta + (2m + 1)\pi$ edota,
a) kasuan bezala: $n\pi$ + arc tg x , n edozein zenbaki osoa izanik.

14.- Idaz itzazu alderantzizko funtzio eran:

a) sin $\theta = 3/4$
b) cos $\alpha = -1$
c) tg d $= -2$
d) cotg $\beta = 1/2$

15.- Kalkula ezazu ondoko expresio hauen balio nagusia:

a) Arc sin $\sqrt{2}/2 = \pi/4 + 2n\pi$, $3\pi/4 + 2n\pi$
b) Arc cos $1/2 = \pi/3 + 2n\pi$, $5\pi/3 + 2n\pi$
c) Arc tg $0 = 2n\pi$, $(2n + 1)\pi$
d) Arc sin $(-1) = -\pi/2 + 2n\pi$
e) Arc cos $0 = \pi/2 + 2n\pi$, $3\pi/2 + 2n\pi$
f) arc tg $(-\sqrt{3}) = -\pi/3 + 2n\pi$, $2\pi/3 + 2n\pi$
g) arc sin $(-1/2) = 3\pi/4$
h) arc tg $(-\sqrt{3}) = -\pi/3$
i) arc sec $(-\sqrt{2}) = -3\pi/4$
j) arc cosec $(-1) = -\pi/2$

16.- Kalkula itzazu:

a) sin (arc sin (-1/2))	-1/2
b) cos (arc cos $\sqrt{3}/2$)	$\sqrt{3}/2$
c) tg (Arc tg (-1))	-1
d) sin (Arc cos (- $\sqrt{3}/2$))	1/2
e) tg (Arc sin 0)	0
f) sin (Arc cos 415)	315
g) cos (Arc sin (-12/13)	5/13
h) sin (Arc tg 2)	$2/\sqrt{5}$
i) Arc cos (sin 220°)	130°
j) Arc sin (cos (-105°)	-15°
k) Arc tg (ctg 230°)	40°
l) Arc ctg (tg 100°)	170°
m) Sin (2 Arc sin 2/3)	$4\sqrt{5}/9$
n) Cos (2 Arc sin 3/5)	7/25
o) Sin (1/2 Arc cos 415)	$1/\sqrt{10}$

17.- Froga itzazu ondoko berdintza hauk:

a) sin (Arc sin 5/13 + Arc sin 4/5) = 63/65
b) cos (Arc cos 15/17 - Arc cos 7/25) = 297/425
c) sin (Arc sin 1/2 - Arc cos 1/3) = 1 $-2\sqrt{6}/6$
d) tg (Arc tg 3/4 + Arc tg 15/8) = 77/36
e) cos (Arc tg -4/3 + Arc sin 12/13) = 63/65
f) tg (Arc sin -3/5 - Arc cos 5/13) = 63/16
g) tg (2 Arc sin 4/5 + Arc cos 12/13) = -253/204
h) sin (2 Arc sin 4/5 - Arc cos 12/13) = 323/325

18.- Froga itzazu ondoko berdintza hauk:

a) Arc tg 1/2 + Arc tg 1/3 = $\pi/4$
b) Arc sin 4/5 + Arc tg 3/4 = $\pi/2$
c) Arc tg 4/3 - Arc tg 1/7 = $\pi/4$
d) 2 Arc tg 1/3 + Arc tg 1/7 = $\pi/4$
e) Arc cos 12/13 + Arc tg 1/4 = Arc ctg 43/32
f) Arc sin 3/5 + Arc sin 15/17 = Arc cos -13/85
g) Arc tg a + Arc tg 1/a = $\pi/2$ ($a > 0$)

19.- Froga ezazu R erradioa duen zirkulu baten zuzenkiaren azalera - bere zentrotik d distantziara dagoena -
$K = R2$ Arc cos $d/R - d\sqrt{R2 - d2}$ dela

VIII - EKUAZIO TRIGONOMETRIKOAK

VIII - EKUAZIO TRIGONOMETRIKOAK

Angelu ezezaguneko funtzioen arteko berdintza trigonometrikoak bi eratakoak izan daitezke:

a) identitateak, edozein angeluren funtziorentzat definiturik badago.

b) berdintza baldintzazkoak edo ekuazioak, angelu ezezagunen balio partikularrekin bakarrik egiaztatzen badira.

Adibidez

a) sin x cosec x = 1; identitate bat da, edozein x balioren tzat -cosec x balio honekin definitua badago- balio duela ko.

b) sin x = 0; ekuazio bat da, zeren ez bait da $x = \frac{1}{4}\pi$ edota $\frac{1}{2}\pi$ balioentzat kunplitzen.

VIII.1 - EKUAZIO TRIGONOMETRIKO BATEN EMAITZA

sin x = 0; bada, bere emaitzak honako hauk dira: x =0 eta $x = \pi$.

Ekuazio batek emaitza bat badu jeneralean infinitu emaitza ditu; honela, ba, sin x = 0ren emaitza osoa:

$x = o+2n\pi$ eta $x = \pi + 2n$ da, n edozein zenbaki oso izanik.

Kapitulu honetan emaitza partikularrak bakarrik aipatuko dira, hauk $0 \leq x \pi 2$ tartean badaude.

VIII. 2 - EKUAZIO TRIGONOMETRIKOAK ASKATZEKO METODOAK

Esan dezagun lehenik, ez dagoela metodo jeneralik. Halere, badira 3 prozedura normalak segidan ikusiko dugunez, eta beste batzuk gehiago, problemetan agertzen direnak.

A - Ekuazio faktoriza daiteke

1 - Adibidea:

$\sin x - 2\sin x \cos x = 0$; askatu, faktoretan deskonposatuz, $\sin x - 2 \sin x \cos x = \sin x\,(1-2 \cos x) = 0$. Faktore bakoitza zerora berdinduz, zera lortzen da: $\sin x = 0$ —— $x = o, \pi$

$1-2 \cos x = 0$ —— $\cos x = 1/2$

$x = \frac{\pi}{3}, \frac{5\pi}{3}$

Proba:

$x = 0$; $\sin x - 2\sin x \cos x = o - 2(0)\ (1) = 0$

$x = \frac{\pi}{3}$; $\sin x - 2\sin x \cos x = \frac{1}{2}\sqrt{3} - 2(\frac{1}{2}\sqrt{3})\ (\frac{1}{2}) = 0$

$x = \pi$; $\sin x - 2\sin x \cos x = o - 2(0)\ (-1) = 0$

$x = \frac{5\pi}{3}$; $\sin x - 2\sin x \cos x = \frac{-\sqrt{3}}{2} - 2(-\frac{\sqrt{3}}{2})\ (1/2) = 0$

Beraz, o eta 2 artean dauden emaitzak, hau da, $o \leq x < 2\pi$, hauk dira:

$x = o, \frac{\pi}{3}, \frac{5\pi}{3}$

B - Ekuazio honetan agertzen diren funtzioak funtzio bakar batez adieraz daitezke

2 - Adibidea:

$2\ tg^2\ x + sec^2\ x = 2$

Badakigu $sec^2\ x = 1 + tg^2\ x$ dela. Beraz, ekuazioan ordezkatzen badugu $2tg^2\ x + 1 + tg^2\ x\ 2$, $3tg^2\ x + 1 = 2$, $tg\ x = \pm 1/\sqrt{3}$

$tg\ x = \frac{1}{\sqrt{3}} \longrightarrow x = \frac{\pi}{6}$ eta $7\pi/6$

$tg\ x = -1/\sqrt{3} \longrightarrow x = \frac{5\pi}{6}$ eta $11\pi/6$

Balio hauk ekuazioan egiaztatu ondoren, 0 eta 2π artean dauden balioak, hots, $0 \leq x \leq 2\pi$, hauk dira: $x = \frac{\pi}{6}, \frac{5\pi}{6}, \frac{7\pi}{6}, \frac{11\pi}{6}$

3 - Adibidea:

$\sec x + \operatorname{tg} x = 0$ askatu

$\sec x + \operatorname{tg} x = \frac{1}{\cos x} + \frac{\sin x}{\cos x} = 0$. Ekuazioa $\cos x$ biderkatzen badugu, $1 + \sin x = 0$, beraz, $\sin x = -1$. Baina ez $x = \frac{3\pi}{2}$ eta ezta $\operatorname{tg} x$ ere daude puntu horretan definiturik. Honela, ba, ekuazio honek ez du emaitzarik.

C - Ekuazioaren bi aldeak karratuak dira

4 - Adibidea:

$\sin x + \cos x = 1$ askatu

(B) ko prozedura erabiliaz, $\sin x = \pm\sqrt{1-\cos^2 x}$, edota, $\cos x = \pm\sqrt{1-\sin^2 x}$, egin beharko genuke. Baina honela erradikal bat sartzen da ekuazioan.

Horrelakorrik sort ez dadin, beste bide honi ekiten zaio. Ekuazioa modu honetara idazten da: $\sin x = 1-\cos x$ eta orain 2 aldeak karratura berretzendira.

1) $\sin^2 x = 1-2\cos x + \cos^2 x$

$1-\cos^2 x = 1-2\cos x + \cos^2 x$

$2\cos^2 x - 2\cos x = 2\cos x\,(\cos x-1) = 0$

Beraz; $\cos x = 0 \longrightarrow x = \frac{\pi}{2}, \frac{3\pi}{2}$

$\cos x-1 = 0 \longrightarrow x = 0$

Proba: $x = 0$ $\sin x + \cos x = 0+1 = 1$

$x = \frac{\pi}{2}$ $\sin x + \cos x = 1+0 = 1$

$x = \frac{3\pi}{2}$ $\sin x + \cos x = -1+0 \neq 1$

Beraz, $x = 0$,

$x = \frac{3\pi}{2}$ emaitza estrainio bat besterik ez da.

Hemen agertzearen arrazoia oso sinplea da, hots: ekuazioa askatzeko bi aldeak karratura berretu ditugu.

Honela, ohar gaitezen emaitza honek ekuazio berri hau betetzen duela, baina ez hasierakoa.

PROBLEMA ASKATUAK

Ekuazio trigonometrikoen emaitzak aurkitu o eta 2 artean, hots, $0 \leq x < 2\pi$.

1) $2 \sin x - 1 = 0 \longrightarrow \sin x = \frac{1}{2} \qquad x = \frac{\pi}{6}, \frac{5\pi}{6}$

2) $\sin x \cos x = 0$

$$\left.\begin{array}{ll} \sin x = 0 & x = 0, \pi \\ \cos x = 0 & x = \frac{\pi}{2}, \frac{3\pi}{2} \end{array}\right\} x = 0, \frac{\pi}{2}, \pi, \frac{3\pi}{2}$$

3) $(\operatorname{tg} x - 1)(4 \sin^2 x - 3) = 0$

$\operatorname{tg} x - 1 = 0 \qquad x = \pi/4, 5\pi/4$

$4 \sin^2 x - 3 = 0 \quad \sin x = \pm\sqrt{3/2} \qquad x = \pi/4, 2\pi/3, 4\pi/3, 5\pi/3$

eskatutako emaitzak, ba, hauk dira

$x = \pi/4, \pi/3, 2\pi/3, 5\pi/4, 4\pi/3, 5\pi/3$

4) $\sin^2 x + \sin x - 2 = 0$

faktorizatuz, $(\sin x + 2)(\sin x - 1) = 0$

beraz, $\sin x = -2$ (ez dago emaitzarik)

$\sin x = 1$ $x = \pi/2$

eskatutako emaitza, ba , $\pi/2$ da.

5) $3\cos^2 x = \sin^2 x$

Lehen bidea: $\sin^2 x = 1-\cos^2 x$

ekuazio ordezkatuz, zera lortzen da:

$3\cos^2 x = 1-\cos^2 x$ edata $4\cos^2 x = 1$. Beraz, honen emaitza $\cos x = \pm 1/2$ eta $x = \pi/3,\ 2\pi/3,\ 4\pi/3,\ 5\pi/3$.

Bigarren bidea:

Bi aldeek $\cos^2 x$ bidez batituz, honetara helduko gara: $3 - tg^2 x$. Beraz, $tgx = \pm\sqrt{3}$ eta x en balioak lehen bezalakoak dira.

6) $2\sin x - \operatorname{cosec} x = 1$

Ekuazio sin x z , biderkatzen badugu, $2\sin^2 x - 1 = \sin x$ eta hemendik $2\sin^2 x - \sin x - 1 = (2\sin x + 1)(\sin x - 1) = 0$

Beraz, $2\sin x + 1 = 0 \longrightarrow \sin x = -1/2 \longrightarrow x = \frac{7\pi}{6}, \frac{11\pi}{6}$

$\sin x = 1 \longrightarrow x = \pi/2$.

<u>Proba</u>;

$x = \frac{\pi}{2}$ $2\sin x - \operatorname{cosec} x = 2(1)-1 = 1$

$x = \frac{7\pi}{6}$ eta $\frac{11\pi}{6}$, $2\sin x - \operatorname{cosec} x = 2(-1/2)-(-2) = 1$

Emaitzak, ba, hauk dira: $x = \frac{\pi}{2}, \frac{7\pi}{6}, \frac{11\pi}{6}$

7) $\operatorname{cosec} x + \operatorname{ctg} x = \sqrt{3}$

Lehen bidea: $\operatorname{cosec} x = \sqrt{3} - \operatorname{ctg} x$ moduan idazten badugu ekuazioa, eta gero bi aldeek karratura berretzen baditugu, $\operatorname{cosec}^2 x = 3 - 2\sqrt{3} \operatorname{ctg} x + \operatorname{ctg}^2 x$ $\operatorname{cosec}^2 x = 1 + \operatorname{ctg}^2 x$ z, ordezkatuz eta ekuazioa landuz, honetara heldukogara:

$$2 \operatorname{ctg} x - 2 = 0 \longrightarrow \operatorname{ctg} x = 1/\sqrt{3} \longrightarrow x = \pi/3,\ 4\pi/3$$

Proba:

$x = \pi/3$; $\operatorname{cosec} x + \operatorname{ctg} x = 2/\sqrt{3} + 1/\sqrt{3} = \sqrt{3}$

$x = 4\pi/3$; $\operatorname{cosec} x + \operatorname{ctg} x = -2/\sqrt{3} + 1/\sqrt{3} \neq \sqrt{3}$

Beraz, azken emaitza honek ez du balio. Ekuazio honen emaitza bakarra $x = \pi/3$ da.

Bigarren bidea:

Ekuazioa beste modu honetan ere jar daiteke $\frac{1}{\sin x} + \frac{\cos x}{\sin x} = \sqrt{3}$ eta izendatzaileak kenduz, $1 + \cos x = \sqrt{3} \sin x$

Bi aldeak karratura berretuz

$$1 + 2\cos x + \cos^2 x = 3\sin^2 x = 3(1 - \cos^2 x)$$

$$4 \cos^2 x + 2\cos x = 2 = 2(2\cos x - 1)(\cos x + 1) = 0$$

Honela, ekuazio honen emaitzak hauk izango dira.

$$2 \cos x - 1 = 0 \longrightarrow \cos x = 1/2 \longrightarrow x = \pi/3,\ 5\pi/3$$

$$\cos x + 1 = 0 \longrightarrow \cos x = -1 \longrightarrow x = \pi$$

Hemen ikusten denez, 3 emaitza irten zaizkigu. Halere, bai $x = \pi$ eta baita $x = \frac{5\pi}{3}$ ere ez dute balio, seren $\operatorname{cosec} x$ ez dago puntu horietan definiturik.

ANGELUEN MULTIPLOAK SARTZEN DIREN EKUAZIOAK

8) $\sin 3x = -1/2\sqrt{2}$

x ek o eta 2π artean egon behar duenez gero, 3x ek o eta 6π artean egon beharko du, hots, $0 \leq 3x < 6\pi$

Ekuazioa askatuz, $3x = 5\pi/4,\ 7\pi/4,\ 13\pi/4,\ 21\pi/4,\ 23\pi/4$ eta $x = 5\pi/12,\ 7\pi/12,\ 13\pi/12,\ 15\pi/12,\ 21\pi/12,\ 23\pi/12$.

Balio hauetako edozein da goiko ekuazioaren emaitza.

9) $\cos 1/2\ x = 1/2$

s o eta 2π artean egon behar duenez gero, 1/2 x o eta π artean egon beharko du, hots, $0 \leq 1/2\ x < \pi$

Honela, ba $1/2\ x = \frac{\pi}{3}$ eta $x = \frac{2\pi}{3}$

10) $2\cos^2 1/2\ x = \cos^2 x$

$2\cos^2 1/2\ x = 1 + \cos x$ eginez, gure ekuazio hau beste honetan bilakatuko zaigu:

$\cos^2 x - \cos x - 1 = 0$

Bigarren graduko ekuazio hau askatuz,

$$\cos x = \frac{1 \pm \sqrt{5}}{2} = \begin{cases} 1,6180 \\ -0,6180 \end{cases}$$

Badakigu cos x beti -1 eta 1 artean dagoela definiturik, eta, hau dela eta, 1,6190 emaitzak ez du zentzurik, hain zuzen. Beraz egiazko emaitza x = -0,6180 da, eta honen angeluak hauk dira: x = 128° 10' eta x = 231°50'

<u>OHARRA</u>: $\sqrt{2}\cos 1/2\ x = \cos x$ eta $\sqrt{2}\cos 1/2\ x = -\cos x$

ekuazioak nahi baditugu askatu, karratura berretuko ditugu, eta lehen ikusitako ekuazioa lortuko dugu. Lehengo ekuazio emaitza x = 231° 50' da, eta bigarren ekuazioaren emaitza, berriz, 128° 10'

11) $tg 2x + 2 \sin x = 0$

$tg\ 2x = \dfrac{\sin 2x}{\cos 2x} = \dfrac{2 \sin x \cos x}{\cos 2x}$ dela jakinik eta ekuazioan ordezkatuz, $\dfrac{2 \sin x \cos x}{\cos 2x} + 2 \sin x = 2 \sin x \left(\dfrac{\cos x}{\cos 2x} + 1 \right)$

$= 2 \sin x \left(\dfrac{\cos x + \cos^2 x}{\cos 2x} \right) = 0$

$\sin x = 0 \longrightarrow x = 0, \pi$

$\cos x + \cos^2 x = \cos x + 2 \cos^2 x - 1 = (2\cos x - 1)(\cos x + 1) = 0$

$$\begin{cases} 2 \cos x - 1 = 0 \\ \cos x = 1/2 \\ x = \pi/3,\ 5\pi/3 \\ \cos x + 1 = 0 \\ \cos x = -1 \\ x = \pi \\ x = \pi/3, \pi,\ 5\pi/3 \end{cases}$$

12) $\sin 2x = \cos 4x$

$\cos 4x = \cos 2(2x) = 1 - 2 \sin^2 2x$ eta honela $2 \sin^2 2x - 1 =$

$= (2 \sin 2x - 1)(\sin 2x + 1) - 0$

$2 \sin 2x - 1 = 0 \Rightarrow \sin 2x = 1/2$; $2x = \pi/6,\ 5\pi/6,\ 13\pi/6,\ 17\pi/6$

$\sin 2x + 1 = 0 \Rightarrow \sin 2x = -1$; $2x = 3\pi/2,\ 7\pi/2$

Beraz, emaitzak hauk dira:

$x = \pi/12,\ 5\pi/12,\ 13\pi/12,\ 17\pi/12,\ 3\pi/4,\ 7\pi/4$

13) $\sin 3x = \cos 2x$

$\sin 3x$ expresioa agertu ez dadin, honela jokatuko dugu.

Lehen bidea: jakinik $\cos 2x = \sin (1/2\pi - 2x)$ eta, baita ere, $\cos 2x = \sin (\pi/2 + 2x)$, direla, expresio hauek kontsideratuko ditugu.

a) $\sin 3x = \sin (\pi/2 - 2x)$, $3x = \pi/2 - 2x$, $\frac{9\pi}{2} - 2x$ lortuz.

b) $\sin 3x = \sin (\pi/2 - 2x)$, $3x = \frac{\pi}{2} + 2x$, $\frac{5\pi}{2} + 2x$, $\frac{9\pi}{2} - 2x$ lortuz.

a) tik, $5x = \frac{\pi}{2}, \frac{5\pi}{2}, \frac{9\pi}{2}, \frac{13\pi}{2}, \frac{17\pi}{2}, ____$ (zeren $5x < 10\pi$),

eta,

b) tik, $x = \frac{\pi}{2}$

Emaitzak hauk dira:

$$x = \frac{\pi}{10}, \frac{\pi}{2}, \frac{9\pi}{10}, \frac{13\pi}{10}, \frac{17\pi}{10}$$

Bigarren bidea: jaikinik $\sin 3x = \cos (\frac{\pi}{2} - 3x)$ eta, baita ere, $\cos 2x = \cos (-2x)$ direla, expresio hauk kontsideratuko ditugu.

c) $\cos 2x = \cos (\frac{\pi}{2} - 3x)$, $5x = \frac{\pi}{2}, \frac{5\pi}{2}, \frac{9\pi}{2}, \frac{13\pi}{2}, \frac{17\pi}{2}$ lortuz.

d) $\cos (-2x) = \cos (\frac{\pi}{2} - 3x)$, $x = \frac{\pi}{2}$ lortuz, lehen bezala.

14) Aska ezazu ondoko sistema hau

1) $\sin x + \sin y = 1{,}2$

$0 \leq x, y < 2\pi$

2) $\cos x + \cos y = 1{,}5$

Lehen aldearen batuketak 1 baino handiagoak direnez gero, lau funtzioak positiboak dira, eta, beraz, x eta y, biok, zorrotzak dira.

Formulak hauk aplikatuz:

1') $2 \sin 1/2\ (x+y) \cos 1/2\ (x-y) = 1,2$

2') $2 \cos 1/2\ (c+y) \cos 1/2\ (c-y) = 1,5$

1'2' z zatituz, $\frac{\sin 1/2\ (x+y)}{\cos 1/2\ (x+y)} = \operatorname{tg} 1/2\ (x+y) - \frac{1,2}{1,5} = 0,8$ eta

$1/2\ (x+y) = 38°40'$ bezala ere, zorrotza da.

5) Aska ezazu $\operatorname{Arc} \cos (2x^2 -1) = 2\operatorname{Arc} \cos 1/2$

bitez $= \operatorname{Arc} \cos (2x^2 -1)$ eta $= \operatorname{Arc} \cos 1/2$; orduan, $\cos\alpha = 2x^2 -1$ eta $\cos\beta = 1/2$

Bi aldeetan kosinuak hartuz, $\cos\alpha = 2x^2-1 = \cos 2\beta = 2\cos^2\beta-1 = 2(1/2)^2-1 = 1/2$

Orduan $2x^2 = 1/2$ eta $x = \pm 1/2$

Proba: $x = \pm 1/2$ bada, $\operatorname{Arc} \cos (-1/2) = 2\operatorname{Arc} \cos 1/2$ edota, berdina dena, $120° = 2(60°)$.

AZKATZEKO PROBLEMAK

Aska itzazu ondoko ekuazioak, x o eta artean egonik.

1) $\sin x = \sqrt{3}/2$ .....emaitzak $x = \pi/3,\ 2\pi/3$

2) $\sin x \cos x = 0$ ..... " $x = 0, \frac{\pi}{2}, \pi, \frac{3\pi}{2}$

3) $2\sin^2 x - \sin x - 1 = 0$ ..... " $x = \frac{\pi}{2}, \frac{7\pi}{6}, \frac{11\pi}{6}$

4) $2\,\mathrm{tg}\, x \sin x - \mathrm{tg}\, x = 0$ ..... " $x = 0, \pi/6, 5\pi/6, \pi$

5) $2 \cos x + \sec x = 3$ ..... " $x = 0, \pi/3, 5\pi/3$

IX - DERIBATUA

IX - DERIBATUA

Kapitulu honetan ondorengo hiru puntuok jakinaren gainean emanik ariko gara; zenbakiak errealak dira, edozein aldagairen hesparrua zenbaki errealezko multzo da eta f(x) aldagaisko funtzio bat funtzio uniformea da:

Kapitulo honetan, y = f(x) funtzio batetatik abiaturik beste y' edo f'(x) funtzio lortzeko bidea adierazten da: azken funtzio honek x-arekiko y-ren edo f(x)-en deribatua du izenez. Segun x eta y = f(x)-ek zer ordezkatzen duten, deribatuak, makur baten zuzen ukitzailearen malda, abiadura, azelerazioa, etab. sentzuak har ditzake.

IX-1 FUNTZIO BATEN MUGA

f(x) funtzio batek badu M muga bat, x-ek c-rako joera duenean (matematika ikurrez mug f(x) = M) baldin x, c-gandik behar hainbat hurbil dauden $x \neq c$ balioentzako, f(x) M-gandik nahi hainbat hurbil badezakegu.

I. Adibidea

Eman dezagun $f(x) = x^2 - 2$ 3tik hurbil dagoen x-entzako

Baldin x 3tik hurbil badago, alegia $2,99 < x < 3,01$, orduan $(2,99)^2 - 2 < f(x) < (3,01)^2 - 2$ edo $6,9401 < f(x) < 7,0601$.

Baldin x 3tik lehen baino hurbilago badago, alegia, $2,999 < x < 3,001$, orduan $(2,999)^2 - 2 < f(x) < (3,001)^2 - 2$ edo $6,994001 < f(x) < 7,006001$.

Baldin x 3tik oraindik hurbilago badago, alegia $2,999 < x < 3,0001$, orduan $(2,9999)^2 - 2 < f(x) < (3,0001)^2 - 2$ edo $6,99940001 < f(x) < 7,00060001$.

Hau ikusiz, logiko dirudi x 3aren inguruko ararte geroz eta txikiagotik hartzen den neurrian, f(x) balio kidekoak 7aren inguruko ararte geroz eta txikiagoan egongo direla ondorioztatzea. Alderantziz, arrazoizkoa dirudi f(x)ek 7aren inguruko ararte geroz eta txikiagoan izan ditzala bere balioak exikitzeko, x-en balioak, 3 aren inguruko ararte geroz eta txikiagoan aukeratzea ondorioztatzea.

$$\operatorname*{mug}_{x \to 3} (x^2 - 2) = 7$$

2. Adibidea

Eman dezagun $f(x) = \dfrac{x^2 - x - 6}{x-3}$, 3tik hurbil dagoen x-entzako

$x \neq 3$ denean, $f(x) = \dfrac{x^2 - x - 6}{x-3} = x + 2$ da. Hala,

x 3tik hurbil dagoenean, x + 2 5tik hurbil dago eta,

$$\operatorname*{mug}_{x \to 3} \frac{x^2 - x - 6}{x-3} = 5$$

IX-2 MUGA BURUZKO TEOREMAK

Baldin $\operatorname*{mug}_{x \to c} f(x) = M$ eta $\operatorname*{mug}_{x \to c} g(x) = W$ badira, orduan

I. $\operatorname*{mug}_{x \to c} \left\{ f(x) \pm g(x) \right\} = \operatorname*{mug}_{x \to c} f(x) \pm \operatorname*{mug}_{x \to c} g(x) = M \pm N$

II. $\operatorname*{mug}_{x \to c} \left\{ k\, f(x) \right\} = K \operatorname*{mug}_{x \to c} f(x) = KM$, K konstante bat izanik

III. $\operatorname*{mug}_{x \to c} \left\{ f(x) x g(x) \right\} = \operatorname*{mug}_{x \to c} f(x) . \operatorname*{mug}_{x \to c} g(x) = M.N.$

IV. $\underset{x \to c}{\text{mug}} \dfrac{f(x)}{g(x)} = \dfrac{\underset{x \to c}{\text{mug}} f(x)}{\underset{x \to c}{\text{mug}} g(x)} = \dfrac{M}{W}$, baldin $N \neq 0$

IX-3 FUNTZIO ETENGABEAK

f(x) funtzio bat etengabea da x = c puntuan baldin:

(I) f(x) definitua badago,

(2) $\underset{x \to c}{\text{mug}} f(x)$ existitzen bada, eta

(3) $\underset{x \to c}{\text{mug}} f(x) = f(c)$ bada

3. Adibidea

(a) I. adibideko $f(x) = x^2-2$ funtzioa etengabea da x=3 puntuan, zeren eta (I) $f(3) = 7$, (2) $\underset{x \to 3}{\text{mug}} (x^2-2) = 7$, (3) $\underset{x \to 3}{\text{mug}} (x^2-2)=f(3)$

(b) 2. adibideko $f(x) = \dfrac{x^2-x-6}{x-3}$ ez da etengabea x=3 puntuan, zeren f(3) ez bait dago definiturik.

f(x) funtzio bat etengabea da, (a,b) arartean, baldin erarteko x-en balio guztirentzako etengabea bada.

x-eko polinomio bat etengabea da x-en balio guztientzako.

$f(x) = \dfrac{P(x)}{Q(x)}$ x-eko funtzio arrazional bat, P(x) eta Q(x) polinomioak direlarik, Q(x) = 0 bilaka arazten duten x-en balio ez beste guztirentzako da etengabea. Hala, $f(x) = \dfrac{x^2+x+I}{(x-1)(x\ 2)}$ funtzioa,

x=I salbu, x-en beste balio guztientzako da etengabea.

IX-4 UGALPENAK

Eman ditzagun x_0 eta x_1 , x-en bi balio ezberdin. Ohituraz, beraien arteko kendura $(x_1 - x_0)$ alegia, Δx (delta x irakur) ikurkatzen da eta ondorioz $x + \Delta x$ batura x-en ordez.

Beraz, baldin $y = f(x)$ bada eta x_1 $x = x_0$ baliotik $x = x_0 + \Delta x$ baliora aldatzen bada, y_1 $y_0 = f(x_0)$ baliotik $y_0 + \Delta y = f(x_0 + \Delta x)$ baliora aldatuko da. x-ek, $x = x_0$-tik $x = x_0 + \Delta x$-ra aldatzean, y-en eragiten duen aldakuntza $\Delta y = f(x_0 + \Delta x) = f(x_0)$ da.

4. Adibidea

Kalkula x balioz aldatzean y-en sortzen den aldakuntza, $y = f(x) = x^2 - 2 + 5$ izanik.

(a) $x = 3$-tik $x = 3{,}2$-era (b) $x = 3$-tik $x = 2{,}9$-era.

(a) $x_0 = 3$ eta $\Delta x = 0{,}2$ direlarik,
$y_0 = f(x_0) = f(3) = 8$
$y_0 + \Delta y = f(x_0 + \Delta x) = f(3{,}2) = 8{,}84$, eta
$\Delta y = 8{,}84 - 8 = 0{,}84$

(b) $x_0 = 3$ eta $\Delta x = -0{,}1$ direlarik,
$y_0 = f(3) = 8$,
$y_0 + \Delta y = f(2{,}9) = 7{,}61$ eta
$\Delta y = 7{,}61 - 8 = -0{,}39$

IX-5 DERIBATUA

$y = f(x)$-en deribatua $x = x_0$ balioan, zera da:

$$\operatorname*{mug}_{\Delta x \to 0} \frac{\Delta y}{\Delta x} = \operatorname*{mug}_{\Delta x \to 0} \frac{f(x + x) - f(x)}{\Delta x}$$, baldin muga existitzen bada.

Deribatuak kalkulatzeko 5 urratseko erregela honetaz baliatuko gara:

1) Idatzi $y_o = f(x_o)$
2) Idatzi $y_o + \Delta y = f(x_o + \Delta x)$
3) Lortu $\Delta y = f(x_o + \Delta x) - f(x_o)$
4) Lortu $\Delta y / \Delta x$
5) Kalkulatu $\operatorname{mug}_{\Delta x \to 0} \frac{\Delta y}{\Delta x}$

5. Adibidea

Aurkitu $y = f(x) = 2x^2 - 3x + 5$ funtzioaren deribatua, $x = x$ bada.

1) $y_o = f(x_o) = 2x_o^2 - 3x_o + 5$
2) $y_o + \Delta y = f(x_o + \Delta x) = 2(x_o + \Delta x)^2 - 3(x_o + \Delta x) + 5 =$
$2x_o^2 + 4x_o . \Delta x + 2(\Delta x)^2 - 3x_o - . \Delta x + 5$
3) $\Delta y = f(x_o + \Delta x) - f(x_o) = 4x_o . \Delta x - 3 . \Delta x + 2(\Delta x)^2$
4) $\frac{\Delta y}{\Delta x} = 4x_o - 3 + 2 . \Delta x$
5) $\operatorname{mug}_{\Delta x \to 0} \frac{\Delta y}{\Delta x} = \operatorname{mug}_{\Delta x \to 0} (4x_o - 3 + 2 . \Delta x) = 4x_o - 3$

Lehengo adibidetik "o" zubindizea kentzen bada, bost urratsezko erregelak x-en funtzio bat ematen du (kasu honetan 4 x -3), eta hain zuzen, emandako funtzioaren x-arekiko deribatua da. x-arekiko y = f (x) funtzioaren deribatua, ikur hauetako baten bidez adierazten da; y', $\frac{dy}{dx}$, $f'(x)$, edo D x y

x-en balio zehatz batentzako deribatuaren balioa, existitzen denean noski, honela ikurkatzen da:

$y' / x = x_o$, $\frac{dy}{dx} / x = x_o$, edo $f''(x_o)$

IX-6 ORDENA GORENEKO DERIBATUAK

Funtzio baten deribatua aurkitzeko jarraitzen den prozesuari deribazio deritzaio.

Deribazioz, y = f (x) funtziotik x-arekiko f (x) edo y-ren lehenengo deribatua izendatutako beste $y' = f'(x)$ funtzio bat

lortzen da. Era berean, $y' = f'(x)$ x-arekiko deribatzen badugu, $f(x)$ edo y-ren bigarren deribatua izeneko beste $y'' = f''(x)$ funtzio berri bat lortzen dugu. Horrela jarraituaz, lor dezakegu hirugarren, laugarren, etab. deribatua:

7. <u>Adibidea</u>

Eman dezagun $y = f(x) = x^4 - 3x^2+8x+6$,

orduan: $y' = f'(x) = 4^x - 6x+8$,

$y'' = f''(x) = 12x^2-6y$ eta

$y''' = f'''(x) = 24\ x$

PROBLEMA ASKATUAK

1. Aztertu f (x) = 1/x, x = 0-tik hurbil dauden x-en baliorentzako

Baldin x 0-tik hurbil badago, adibidez,

$-0{,}01 < x < 0{,}01$, $\frac{1}{-0{,}01} < \frac{1}{x} < \frac{1}{0{,}01}$ edo

$-100 < \frac{1}{x} < 100$

Baldin x oraindik hurbilago badago, adibidez,

$-0{,}0001 < x < 0{,}0001$, $\frac{1}{-0{,}0001} < \frac{1}{x} < \frac{1}{0{,}0001}$ edo

$-10.000 < \frac{1}{x} < 10.000$, argi dago x-en balioa 0-ren inguruko ararte geroz eta txikiagotan hartzen den neurrian, f (x) kidekoak ez direla M puntu baten inguruko ararte geroz eta txikiagoen barruen gelditzen. Beraz mug (1/x) ez da existitzen

$x \to 0$

2. Kalkulatu posible denean:

a) $\underset{x\to 2}{\text{mug}} \dfrac{x^2 + 6x + 5}{x^2 - 2x - 3}$

$\underset{x\to 2}{\text{mug}} (x^2 + 6x + 5) = 21$ eta $\underset{x\to 2}{\text{mug}} (x^2 - 2x - 3) = -3$, beraz

$$\underset{x\to 2}{\text{mug}} \frac{x^2+6x+5}{x^2-2x-3} = \frac{\underset{x\to 2}{\text{mug}} (x^2+6x+5)}{\underset{x\to 2}{\text{mug}} (x^2-2x-3)} = \frac{21}{-3} = -7$$

b) $\underset{x\to 3}{\text{mug}} \dfrac{x^2+6x+5}{x^2-2x-3}$

$\underset{x\to 3}{\text{mug}} (x^2+6x+5) = 32$ eta $\underset{x\to 3}{\text{mug}} (x^2-2x-3) = 0$; beraz

$\underset{x\to 3}{\text{mug}} \dfrac{x^2+6x+5}{x^2-2x-3}$ ez da existitzen

3.- Eman ditzagun $P(x_0, y_0)$ eta $Q(x_0+\Delta x, y_0+\Delta y)$ $y = x^2$ 3 parabolako bi puntu ezberdin. Kalkulatu $\Delta y/\Delta x$ eta argitu bere esanahia.



Kasu honeta: $y_0 = x_0^2 - 3$

$$y_0+\Delta y = (x_0+\Delta x)^2-3 = x_0^2+2x_0.\Delta x+(\Delta x)^2-3$$

$$y = [x_0^2+2x_0.\Delta x+ (\Delta x)^2-3] - [x_0^2 -3]$$

$$= 2x_0 .\Delta x+(\Delta x)^2$$

eta $\dfrac{\Delta y}{\Delta x} = 2x_0+\Delta x$

Aldameneko irudian, PR eta x ardatza paraleloak dira, halanola QR eta y ardatza ete. Baldin zuzen sekantearen aiherdura bada, orduan $tgx=\dfrac{\Delta y}{\Delta x}$ da; beraz, $\dfrac{\Delta y}{\Delta x}$ PQ zuzen sekantearen malda da.

4.- Aurkitu f' (x), baldin f (x) = $4x^2+3x+5$ bada

$$y = f(x) = 4x^2+3x+5$$

$$y+\Delta y = 4(x+\Delta x)^2+ 3(x+\Delta x) + 5 = 4x^2+8x.\Delta x+4(\Delta x)^2+3x+3\Delta x +5.$$

$$\Delta y = 8x.\Delta x+3\Delta x+4(\Delta x)^2$$

$$\frac{\Delta y}{\Delta x} = 8x+3+4\Delta x$$

$$f'(x) = \operatorname*{mug}_{\Delta x\to 0} (8x+3+4\Delta x) = 8x+3$$

5.- Aurkitu y = f (x) makurraren malda eta zuzen ukitzailearen ekuazioa ondorengo puntu hauetan:

a) $y = 2x^3$, (1,2) puntuan

- 5 urratsen erregelaren bidez, $f'(x) = 6x^2$; beraz m = f' (I)=6
- Zuzen ikitzailearen ekuazioa (1,2) puntuan
  $y-2 = 6(x-1)$ edo $6x-y-4= 0$ da.

b) $y = -3x^2+4x+5$, (3,10) puntuan

- Kasu honetan $f'(x) = -6x+4$; beraz m= f'(3)= -14
- Zuzen ukitzailearen ekuazioa (3-10) puntuan $14x+y-32=0$ da.

6.- Aurkitu ondorengo polinomio honen deribatua:

$$f(x) = (x-2)^2 \ (x-3)^2$$

Biderkaketa hau egiaztatuaz:

$$f(x) = x^4 - 10x^3 + 37x^2 - 60x + 36 \text{ beraz}$$
$$f'(x) = 4x^3 - 30x^2 + 74x - 60 = (x-2)(x-3)(4x-10)$$

7.- Aurkitu ondorengo funtzio hauen $f'(x)$, $f''(x)$ eta $f'''(x)$

a) $f(x) = x^3 - 6x^2$
b) $f(x) = x^5 - x^3 + 3x$

a) $f'(x) = 3x^2 - 12x$; $f''(x) = 6x-12$; $f'''(x) = 6$
b) $f'(x) = 5x^4 - 3x^2 + 3$; $f''(x)=20x^3-6x$; $f'''(x)=60x^2 - 6$

PROPOSATUTAKO PROBLEMAK

7.- Kalkulatu funtzio hauen $\underset{x}{\text{mug}}\ f(x)$, existitzen denean: I

a) $\dfrac{I}{(x-2)(x+3)}$ b) $\dfrac{x-3}{x^2-9}$

em. a) $-I/4$ b) $I/4$

8.- 5 Urratsezko erregelaren bidez aurkitu ondorengo funtzio hauen $f'(x)$:

a) $f(x) = 3x + 5$; b) $f(x) = x^2 - 3x$
em. a) 3 b) $2x-3$

9.- Aurkitu makur bakoitzaren zuzen ukitzailearen eta zuzen elkartzutaren ekuazioak, ematen den puntuan

a) $y = x^2+2$, $P(I,3)$ Em. $2x-y+1 = 0$; $x\ 2y-7 = 0$

b) $y = 2x^2-3x$, $P(I, -I)$ Em. $x-y-2 = 0$; $x+y = 0$

10.- Puntu bat x ardatzetik mugitzen ari da $s = 2t^2+8t+9$ legea beteaz, s(m) jatorri eta puntu beraren distantzia izanik, 0 puntutik zuzendua, t(s) denboran. Aurkitu puntu honen posizioa eta beraren abiadura denbora hauentzako : a) t=0, b) t=1

Em. a) 9m 0-tik eskubira, r = 8m/s
b) 19m 0-tik eskubira, r =12m/s

11.- $y = \frac{1}{2} x^2-2x3$ makurreko zein puntutan da zuzen ukitzailea (1,0) puntuko zuzen ukitzailearekiko elkartzuta,

E. (3, 3/2)

X - FUNTZIO ALJEBRAIKOEN DERIBAZIOA

X - FUNTXIO ALJEBRAIKOEN DERIBAZIOA

X.1 - DERIBAZIO FORMULAK

I.- Baldin $y = f(x) = kx^n$ bada, k eta n konstanteak izanik, orduan $y' = f'(x) = knx^{n-1}$.

II.- Baldin $y = K.u^n$ bada, k eta n konstanteak direlarik eta u x-en funtzioa izanik, orduan $y' = knu^{n-1}.\ u'$; baldin u' existintsen bada.

1. Adibidea

Aurkitu y" ondorengo kasu hauetan:

a) $y = 8\ x\ 5/4$; b) $y = (x^2 + 4\ x - I)\ 3/2$

a) kasu honetan k = 8 eta n = 5/4. Beraz,
